



**2010**ak  
emandakoa



**Udako  
martxa**

AMARAUN KLUBA		GAZTE KLUBA
<b>Ludoteka, txokoak, asteburu eta ekintzak eta gurasoekin egitekoak...</b>		<b>Ostiralero, asteburu eta oporraldietan...</b>
Ipuin kontalaria 50 haur.	URTARRILA	BEC-era irteera 96 haur.
Gurasoekin makilaje ikastaroa 20 lagun.	OTSAILA	Altxorraren bila; 50 haur.
Igo asteburupasara, 22 lagun.	MARTXOA	
<b>Amaraun jaialdian, 30 bazkide bazkaltzen eta 250 inguru festan.</b> Aipagarriena gurasoen parte hartzea eta motibazioa haurrekin jolasterakoan, dantzatzerakoan... <b>Aste Santuko txokoak 27 haur.</b>	APIRILA	<b>Aste Gaztea:</b> Ikaztegieta 3 egunez 78 haur.
Udalekuen prestaketarako asteburupasa.		45 begirale.
Guraso eta haurrekin Ikusi Ikasi eta Hasi ikastaroa.	MAIATZA	20 lagun.
Ludotekako azken festa. II. asteburupasa: Larraulera 22 pertsona joan ziren.	EKAINA	Arcachon-era irteera 75 gazte. <b>San Pedrotako bazkariann 250 haur.</b>
<b>Udalekuak</b>		
<b>Udako txokoak</b> 477 haur eta 53 hezitzaile. <b>Zubietan 58 haur.</b>	UZTAILA eta ABUZTUA	<b>Mendigorrian kanpaldian:</b> 75 haur eta 7 hezitzaile. <b>Udalekuen mix-an 17 haur</b>
Ludotekaren hasiera. <b>Euskarazko jostailuen mailegu zerbitzua</b> martxan.	URRIA	Gazte Kluban ikasturte hasiera, <b>"Ezkontzan"</b> 90 haur egon ziren.
<b>Akelarrea:</b> asteburu eta ekintza berezien lehenengoa...	AZAROA	
<b>Xixukoren bisitak ikastetxeetan.</b> <b>Olentzeroren jaialdia</b> <b>Gabonetako txokoak:</b> 32 haur. <b>Tolosara III. asteburupasa:</b> 21 haur. <b>Gurasoekin "Txutxeri"</b> tarta tailerra: 51 lagun. <b>Santo Tomasetan</b> talo tailerra oso arrakastatsua.	ABENDUA	81 pertsonen parte hartu zuten. <b>Gazte Astean:</b> Pelikula baten grabazioa; 17 haur



# KULTURA - ABARASKA - SOLASKIDE

<b>Xumela abesbatza</b> (Zabaletan auzolan eta Landaberri Guraso elkartearekin).	<b>H I N K U N T Z  K O M U N I T A T E A</b>	50 lagun, 12 solaskide.
<b>Oinatz taldea*</b> Garazi, Leitzarar, Bardeak, Gasteizera irteerak.		Talde eragilean 5 lagun. 5 solaskide.
<b>Ttakun Sariak</b> , Agus Mujika, <b>Takolo</b> .		140 lagun.
<b>Antzerki taldea</b> Kukukarekin elkarlanean taldea*.		10 lagun, hauetatik 6 solaskideak.
<b>Ikastaroak</b> - Euskal jantzi tradizionala egiteko ikastaroa. - Eskulanak egiteko ikastaroa. - Sendabelarren 2 ikastaro. - Argazki ikastaroa		- 10 lagun. - 8 lagun, 5 solaskide. - 32 lagun, 9 solaskide. - 12 lagun.
<b>Bertsolaritza</b> - <b>Helduen eta haurren bertso-eskolak</b> - <b>Udaberriko bertso saioa</b> Bertso eskola Erketz, Katxiporreta, Kukuka, Musika eskola, Senblante Andaluz eta Xumela elkarteekin. - <b>Bertso forumak</b> , 2 saio aurten		- 9 heldu eta 24 haur - 130 lagun oholztan.  - 29 lagun
<b>Inauteriak</b> . Zabaleta, Musika eskola, Jalgune eta Tripontzirekin.		150 lagun gure konpartsan.
<b>Santa Ana Parodia</b> Erketz, Jalgune, Saustatzorekin batera.		Talde eragilea, 5 lagun. 76 lagun, 8 solaskide.
<b>S. Tomas</b> . Talogileak, Amalur, Xumelarekin elkarlanean		44 lagun, 4 solaskide.
<b>Santa Ageda</b> . Xumela, Musika eskola eta bertso eskolarekin.		29 lagun
<b>Azkorteko erromeria</b> .		8 solaskide
<b>Ikastolen jaietara</b> autobusak (Herri Urrats, KMK, NO).		
<b>San Pedro Jaiak</b> - Sorgin Dantza. Haurren Sorgin dantzako burua I. aldiz. - Zikiro afaria. - Sagardo dastatzea. Amalur eta Aterpearekin. - Bertso-saioa. - Kantujira. Xumelarekin elkarlanean.		Deialdi zabalean 280 partaide, 8 solaskide. - 200 lagun. - 14 lagun. - 284 lagun. - 26 lagun.
<b>SOLASKIDE EGITASMOA</b>		
Afari italiarra.		28 solaskide
Pintxo txapelketa		5 lagun
Mintzodromoa.	16 solaskide eta 8 lagun	
Kurto amaierako afaria.	23 solaskide	

\* Ikasturtean zeharreko egitasmoak

# Jalgi



2010ean ESKAINITAKOAK

Le Waló

Max Mbaye (Artea Afrikan)

Zurrumurru taldea "Klowntuz!

Mendia"

Tim Burton (inauteriak)

Bertso saioa

U.K.Bill (Rock,Añorga)

Alvaro Ledesma "espektroak"

Apa 4tet (Bartzelona)

the Billie jeans

Garikoitz Lasa

Gezurrezko Printzea (Txirene)

Film Laburren VII Zirkuitua

Urko Menaia (folk pop)

Juan Mari Cerezoren omenez

J.345 (jazz, Donostia)

Aitzol Etxegoienen argazkiak

Lasarose (folk funk, Bartzelona)

Oreindik + Lauroba

Rudy (Irun)

Goizane Mendizabal

Arkaizter Pelox Band, Rock

Buffalo (jazz rock, Zarautz)

Aprendeh Euskadi erakusketa

Mantisa (Hard core)

Mortimer (Kukubiltxo)

Jasone Irigoien, metamorfosiaz

5 diaporama

Itzartu Taldea

Maldan Behera + Madeleine



**2010 EKO TTAKUN SARIA  
TAKOLORI, AGUS MUJIKARI**

# SOLASKIDE eta KALEA MAIXU



Mintzapraktikako taldeak	
Euskaldun berriak	70 lagun
Euskaldun zaharrak	35 lagun
Taldeak	20 talde

Talde bereziak, zaletasunaren arabera	
Talde eragilea	4 lagun
Talde librea	11 lagun
Antzerkiko taldea	6 lagun
Oinatz, irteeren taldea	2 lagun



Herriko Eskola Kirolen kudeaketa (Landaberri ikastola eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxea)		
	2009/2010	2010/2011
Ikasleak	324 lagun	320 lagun
Taldeak	41 talde	43 talde
Entrenatzaileak	28 lagun	34 lagun
Saioak	1.200 saio	1.200 saio
Partidak eta Topaketak	135 guztira	170 guztira

## URTARRILA



KTG eskiatzera irteera

**Gabonetako txokoak**

KTG eskiatzera irteera

Eskulanen ikastaroa

Bertso-foruma

**Oinatz:** Gasteizera

**Gurasoentzako makilaje ikastaroa**

**Gazte Klubekoak** BECera

## OTSAILA



Inauteriak

**Santa Eskea**

**Inauteriak**

**Solaskideko afaria:** afari mexikarra

**Bertso-paper lehiaketa-**ko sari-banaketa

**Sendabelarren ikastaroa** I

## MAIATZA



Lekuona hotela

**Azkorteko Erromeria**

**Autobusa Herri Urratsera**

**Oinatz:** Bardeetara

**Solaskideko afaria**

**Begiraleen asteburu-pasa**

**Bertso-saio berezia:**

Lekuona hotela

**Eskola Kirola** festa

## EKAINA



Mintzodromoa

**San Pedroak:** zikiroa,

Sorgin Dantza, bertsoak, haurren bazkaria...

**Solaskide:** mintzodromoa

**Amaraun Klubeko 2.** asteburu-pasa

**Arcachonera irteera:**

KTG eta Gazte Kluba

## IRAILA



Gazte Kluba

**Ikasturte hasierak:**

Xumela, ludoteka,

Gazte Kluba...

## URRIA



Eskola Kirola

**Ikasturte hasierak:** Kua-

drillategi, Solaskide,

Eskola Kirola...

**Argazkigintzako**

**ikastaroa**

**Nafarroa Oinezera** joa-

teko autobusa

Urtean osoan martxan dauden egitasmoak

Txintxarri aldizkaria; Jalgiko programazioa; Amaraun ludoteka; Kuadrillategi; KTG; Ga

# gindakoak

## MARTXOA



Bertsosaiio berezia

**Aste Santuko Txokoak**  
**Bertsosaiio berezia** Arrieskalletan  
**Amarau Klubeko** I. asteburu-pasa

## APIRILA



KTG festa

**Aste Santuko Txokoak**      **KTG festa**  
**Sendabelarren**              **Gazte Kluba Ikaztegie-**  
**ikastaroa II**                    **tan: Aste Gaztea**  
**Amarau jaialdia**

## UZTAILA



Parodia

**Udako Txokoak**  
**Kanpaldiak**  
**Santa Ana parodia**

## ABUZTUA



Udako Txokoak

**Udako Txokoak**

## AZAROA



Diaporamak

**Oinatz:** Leizaranera      **Ttakun Sariak**  
irteera                      **Jantzien ikastaroa**  
**Bidaietako Diaporamak**  
**Jalgin**

## ABENDUA



Olentzero

**Santo Tomas**  
**Olentzero**  
**Gabonetako Txokoak**

zte Kluba; Solaskide; Kalea Maixu; Bertso-eskola; Xumela abesbatza; Oinatz taldea.

# GAZTEAK

## KUADRILLATEGI DBH 1 ETA DBH 2

2009-10 ikasturtean bitan zatitu genuen Kuadrillategi egitasmoa. Ostiraletan DBH1-2 mailakoak biltzen ziren eta asteazkenetan DBH3-4koak. Aurkezpenak bai Landaberrin eta bai Sasotan egin genituen. Urtean zehar hainbat ekintza ezberdin egin eta gero (Eski irteera, Arcachon, beldurraren tunela...), udaran kanpaldi bat antolatu genuen Durangoko gazteekin.

Kanpaldian Oriotik hasi eta Bermeon bukatu zen kanpaldia. Bertan gure programako 34 gazte eta 4 begirale ibili ziren. 60 lagunek eman dute izena ikasturtean zehar, eta ekintzetako parte hartzaileen maiztasuna 30 lagunetakoa da.



## KTG DBH 3 ETA DBH 4

Kuadrillategiko bigarren fasea bezela da ezaguna. Fase honetan, beraien interesetatik abiatutako proiektuak martxan jartzeari da erronka. Lehengo urtean argazkigintzarekin hasi nahi izan genuen, baina ez zuen martxa hartu. Horrela, udararako kanpaldi bat antolatzea izan zen erronka nagusia. Beraien asmoa Euskal Herria Zuzenean izeneko festibalean

parte hartzea izan zen eta hantxe izan ginen. Hau aprobetxatuz, kanpaldi bat egin genuen Euskal Herriko iparraldean zehar. Bertara herriko 20 gazte eta 3 begirale joan ginen.



## KTG FESTA

Ktg festa Kuadrillategi egitasmoa duten beste herriekin batera azken bi urtetan antolatutako egun pasa da. Guztira 60 lagun inguru bildu ziren, eta Lasarte-Oriatik 20 gaztek parte hartu zuten.



## IRAKUTREZIN

Edukien prestaketaz gain, aldizkariaren antolaketa eta bukaerako irudia eta maketa lantzea izan dira eskolatik kanpo antolatu eta dinamizatu dugun erredakzio taldearen ardura. Talde honetan Landaberri ikastetxeko eta Lasarte-Usurbil institutuko ikasleek parte hartzen dute.

Urtean 3 aldizkari argitaratzen dira, asteen behin elkartuta. 2009ko azkenean atzerapen batzuk izan ziren eta horregatik 2010eko urtarrilean atera zen.

## BATUKADA

Batukada taldea desegin egin zen lehengo ikasturtean, interesa galdu zutelako bertako partaideak. Hala ere, aruten inauterietako gai bezala jarri dugu eta erronketako bat batukada taldea berreskuratzea izango da.

## GAZTE LOKALA

Gazteen topagune izan nahi du gazte lokalak. Bilgune fisikoa behar dugu ahalgin honetan eta gazteak dira estrategikoki gure lehenetsia, gure bihurtuko dutenak. Horregatik, gazte bilgune honek, 14 eta 25 urte bitarteko gazteekin espazio berritzaile eta sortzaile bat martxan jarri nahi du. Gazteek kudeatu eta sortutako proiektu bat izango da Ttakunekin elkarlanean eta babesarekin, egitura juridiko berri bat sortuta.





## ZERBITZUAK

2010ak zerbitzuen atalean eman duena zerbitzuka eta kopurutan adierazten saiatuko gara.

Esku-hartzeei dagokioenean, 2010ean 2009an hasitako hainbat proiekturekin jarraitu dugu eta hurrengo urteei begira hauen jarraipena ere zehaztea lortu dugu, adibidez:

·Gasteizko Eskolaz Kanpoko Ekintzetan Euskaraz Proiektua, Gasteizko Udaleko euskara saila, Arabako foru aldundiko euskara saila, Denon Eskola eta Arabako berritzeguneekin elkarlanean. Arabako 12 ikastetxetan Eskola Orduz Kanpoko eta Jangelako hezitzaileei euskararen erabilerara sustatzeko estrategien inguruko trebakuntza eman diegu. Eta asmo

beraren eskurapenerako koordinatzaileekin ere egunerokotasunean burutzen dituzten lanen inguruko jarraipen eta aholkularitzak egin dira.

·Lauro ikastolan, DBH eta Batxilergoko 40 irakaslerekin lanean, ikastetxearen hizkuntza plangintza burutu dugu eta 2010-2011 ikasturtean plangintzan erabakitako ildo estrategikoak martxan jartzen gabiltza. Ildo aipagarrienetako bat, DBH4ko 22 ikaslerekin garatzen ari den hautazkoa izango genuke. Bertan ikasle hauei euskaraz lasaitasunez eta arduraz aritzeko espazio eta denbora tarte bat eskeini nahi izan zaie eta horren emaitza argia ikasle hauen artean euskararen erabileran eman den iguera izan dezakegu.

·KTG Euskal Herrian, Euskal herriko txoko eta herri ezberdinetako gazteen hizkuntza ohiturak euskalduntzearen bidean lanean darraigu. 2010 urtean, Lasartez gain, Aretxabaleta, Olazti, Altsasu, Urdiain, Irurtzun eta Lakuntzan ere Kuadrillategi egitasmoak burutu dira eta tokian tokiko proiektuez gain hauek guztiak bateratzeko espazioak ere bilatu ditugu, web orria, ktg jaialdia, kanpaldiak... bidez.

·Jolas eta Solas, hasiera batean Lasarte-Oriako ikastetxeetan burutzen zen jolas orduetako dinamizazioa, 2010-2011 ikasturtean Egape ikastolara ere zabalgu dugu.

Ikastaro kopuruei dagokienean:

- Hezitzaileek Asko Egin Dezakete, 41 ikastaro
- Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean, 48 ikastaro

- Euskara Motibazio Saioak, 33 ikastaro
- Ikusi, Ikasi eta Hasi, 5 ikastaro
- Gela Mugitu eta Taldea Sare, 4na ikastaro.
- Zergatik Euskaraz, 2 saio

Ikastaro eta Esku-hartzeez gain, 2010ean udako egitasmoen kudeaketan ere anbizioz jokatu dugu eta ondorioz hasiera batean Lasarten edota Lasarteko gazteentzat solik burutzen ziren egitasmoak Euskal Herrian zehar zabaltzeari ekin diogu.

·Urnietan, bigarren urtez udako txokoak kudeatu ditugu, bertan 175 haurren parte hartzea izanik.

·Seguran, aldundiak oporraldien egitasmoen barruan antolaturiko udaleku itxien kudeaketaren ardura izan dugu. Bertan 7 eguneko 6 txandetan zehar EAEko 50na gazte izan ditugarik.

## Kuadrillategi esku-hartzearen hizkuntza harremanen bilakaera \*

2009-2010 ikasturtea	Euskararen erabilera igo	Euskara erabilera mantendu				Euskara erabilera jaitsi
		B e t i euskaraz	Gehienetan euskaraz	Gehienetan erdaraz	Beti erdaraz	
Koadrilako kideen biko harremanak (507 2ko harreman)	% 9,5	% 86,4				% 4,1
		% 78,1		% 8,3		
		% 48,7	% 29,4	% 8,1	% 0,2	
Koadrilaren arteko biko harremanak (136 2ko harreman)	% 9,5	% 84,5				% 5,8
		% 84,5		% 0		
		% 82,3	% 2,2	% 0	% 0	

\* Taula honetako emaitza, Aretxabaleta, Lasarte-Oria, Altsasu, Urdiain eta Lakuntzakoak dira.

## Kuadrillategi esku-hartzearen hizkuntza harreman berriak (lagina 29)

2009-2010 ikasturtea	Beti euskaraz	Gehienetan euskaraz	Gehienetan erdaraz	Beti erdaraz
Harreman berrien biko harremanak	% 86,2	% 13,8	% 0	% 0

# KOMUNIKAZIOA

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean, Lasarte-Oriako gertakarien berri euskaraz ematea du helburu atal honek eta horretarako Txintxarri du tresna nagusia (paperezko edizioa eta edizio digitala).

## PAPEREZKO EDIZIOA

Aldizkarian maiztasunaren aldeko apustuari eutsi diogu eta astean bitan argitaratzen da, 2010ean 81 zenbaki (arruntak, bereziak eta gehigarriak). Txintxarri herri osoan banatzen da etxeko postontzietan eta herritik kanpo bizi diren bazkideei ere bidaltzen zaie.

## DIGITALA

### www.txintxarri.info

Web atariaren egunerokotasuna da nagusi. Bertan albisteak gertatu bezain pronto agertzen dira eta paperean argitaratutakoak ere aurkitu daitezke. Albisteez gain, argazki galeriak, agendak, zorion-agurrak... ere topatu daitezke.

## BALIABIDEAK

Giza baliabideei dagokienez, erredakzio burua, publizista eta hiru kazetari (bat lanaldi osoz eta beste biak erdira) ari dira lanean eta herriko kolaboratzaileak ere badira. Banaketan ere langileak ditugu Baliabide ekonomikoiei dagokienez, publizitate bidez lortutako diruaz gain, Txintxarrik Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza publikoak jasotzen ditu.

## BALORAZIOA

2009. urtean lan-taldea egonkortzen egin zen ahalegina eta 2010ean, uda osterako, lortu dugula esan daiteke. Ipinitako hainbat erronka ez ditugu bete (haur eta gazteentzako atalak sortzea, atal digitalean grabazioak txertatzea...). 2010ean saiatu gara "lasaiago", "denborekin" lan egiten, hau da, gure antolaketa findu dugu eta denbora gehiago izan dugu egindako lana erreparatu eta zuzen argitaratzeko. Garrantzitsua deritzogu modu honetan lan egitea, beste atalei behar den arreta denbora eta energia eskaini ahal izateko.



www.txintxarri.info



# 2010 ZENBAKITAN

## Egitasmo iraunkorren kopuruak

<b>Ikasturteko egitasmoak</b>	<b>Adina</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
Amaraun ludoteka *	2-8	--	--	125	143
Gazte kluba *	9-12	57	33	73	66
KTG *	12-18	62	82	109	74
Bertso-eskola *	11 urtetik aurrera	--	20	32	35
Solaskide *	Helduak	40	69	105	106
Xumela abesbatza	Helduak	--	42	45	51

## Udako egitasmoen kopuruak

<b>Udako egitasmoak</b>	<b>Adina</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
Kanpaldiak *	9-16	37	64	114	129
Udako Txokoak *	3-12	410	456	482	478

\* Udalarekin hitzartutako egitasmoak.

## Ekintzen eta parte-hartzearen kopuruak

	<b>Ekintza kopurua</b>	<b>Parte-hartzea</b>	<b>Ikusleak</b>
Jalgi kafe-antzokia	34	78	1.065
Kultura-Abaraska	34	1.197	2.954
Amaraun Kluba	12	636	1.250
Gazte Kluba	38	1.555	
KTG	39	779	

[www.ttakun.com](http://www.ttakun.com)